hazi ginen, Nilo ibaian.
Urrunera joan zarete itotzen, esan zieten amak.
Jonek eta Mikelek esan zioten: - Faraoi baten makila lapurtu dugu. Eta Nilo ibaiko animaliek esan digute makila barik desagertu egingo ginela. - Jakina, erantzun zien amak: - Gernikako arbola lapurtuko baligute, gu ez ginen gu izango. Eta zer izango ginen ba? Inutak, [illegible] Batek daki!.

AMAIERA

Ander

L.H.4.A



L.H. 2.zikloa

Iñigo Unda

“Txirrindularitza gogoko dut”

# “Txori bat neguan”

TXORI BAT NEGUAN

Neguko igande goiz batean, Martintxo lotan zegoen bero-bero bere amak jarri zizkon izara lodien artean. Altxatu zenean leihoan kolpe batzuk entzun zituen. Orduan, leihora hurbildu zen eta txori zauritu bat aurkitu zuen.

Martintxok ikusi zuen txoriak hanka apurtuta zeukala. Ondoren, txoria hartu eta amari deitu zion. Ama gosaria prestatzen ari zen, igandea zenez txokolatea eta madalenak prestatu zituen. Amak Martintxoren deia entzun zuenean berarengana joan zen. Ama triste jarri zen txoria ikustean eta txoriari laguntzea erabaki zuen. Egin zuen lehenengo gauza txoria berogailu ondora eramatea izan zen eta ondoren Fermin albaitariari deitu zioten. Fermin Martintxoren etxera joan zen eta hanka konpondu zion txoriari.

Martintxok bere logelan utzi zuen txoria ezkutatuta, bitartean zapi katua han zebilen zer lapurtu ez zekiela. Martintxoren logelan txori bat zegoela

uxaindu zuen.

Orduan amaren despiste batean logela barruan sartu zen zapi. Minutu batzuk igaro ondoren, amak atea itxi zuen. Orduan katua barrura sartu zen baina kasualitatez leihoa irekita zegoen eta txoriak leihotik alde egin zuen.

Logelan gelditu ziren katua, Martintxo eta Ama, ez zuten ulertzen txoriak zergatik leihotik alde egin zuen. Baina txoriak argi zuen logelan geratu bazen katuaren bazkaria bera izango zela.





Aitor Oianguren Asua

"Nagusitan zientzialaria izan nahi dut"

# "Tronen"

## TRONEN

Bazen behin Aitor deitzen zen mutil bat eta oso pobrea zen. Bere gurasoak non zeuden inork ez zekien. Triste baina gogotsu oldi bere-an, esan zuen Aitorrek:



-Hilabete batean nire gurasoak topatuko ditut! baina zelan?

Denbora aurrera zihoan. Urteak joan, urteak etorri pentsatzen eta pentsatzen pasatzen zituen gauak. Baina, egun batean horrela esan zion bere osabak:



- Beno, azkenean heldu da jakiteko eguna.

-Zer jakin behar dut, ba?-galdetu zuen Aitorrek.

-Zure amak eta aitak hau eman zidaten zuretzat.

-Eltzea babatzuk dira! Zelan lekukoak dira!

Zure zeozer dagoela han. Hara joango naiz ikustera.

Hara heldu zenean dena abandonatuta zegoen. Orduan, behera joan zen zer zegoen ikustera eta jolas guztiak plastikoz estalita zeuden.... Gehiago hurbildu zen eta... ZAZ!! jausi egin zen. Orduan hormaren kontra jo eta ate bat zabaldu zen. Han, ordenagailu bat zegoen eta bere atzean asmakizun arraro bat.

-Seguraski hau da nire gurasoek esan nahiko zuten tokia. Orduantxe, berriro labandu zen eta botoi bat ikutu zuen. Pizten hasi zenean... ZIUUUUu..!!±*?!.*± ¡¡seinale arraroak ikusi zituen. Bat-batean txori bat agertu zen eta esan zion txoriak:



-Berria zarenez, hemen munduan, 3 froga egin beharko dituzu gure erregearen etxera joateko.

1.- trolaren aurka egin 2.- Barraskilo handiaren aurka egin eta 3.- Dragoiaren aurka egin.

Aitorrek hiru frogak gainditu ondoren, gaztelura



L.H. 2.zikloa

## Maialen Altuna Lakarra

"Irakurtzea gustatzen zait"

# "Gerra gaiztoa da mundu guztiarentzat"

GERRA GAIZTOA DA MUNDU GUZTIARENTZAT!!!

Behin batean Gernikako hiri ederra bonbardatu zuten. Egun hartan familia asko etxe gabe geratu ziren eta beste batzuk hori baino txarrago, familia barik.

Jende askok beldurtuta atzerrira joateko beharra izan zuen. Familia bat itsasontzia hartu eta Italiara joan zen. Gorane familiako txikiena, harrituta eta ikaratuta zegoen. Etxe berrira joan ziren. Auzo hartan Sofia izeneko lagun bat egin zuen.

Goranek eta Sofiak hasieran keinuak erabiltzen zituzten ulertzeko baina denbora gutxi behar izan zuten komunikatzeko, umeak txikiak izan arren oso azkarrak zirelako. Goranek euskaraz hitz egiten irakatsi zion Sofiari eta honek Goraneri italieraz.

Oso lagun minak egin ziren. Goranek Sofiari esaten zion egunen batean Gernikara bueltatuko zela eta gonbidatuko zuela bere Gernikako etxera. Sofiak hau entzutean triste jartzen zen, ez zuelako Gorane laguna galdu nahi. Bitartean, Goraneren gurasoak lan asko egin zuten dirua aurrezteko eta Gernikako etxea konpondu ahal izateko. Goranek ipuin polit bat kontatu zion Sofiari eta hauxe da laburpena: Behin batean munduan piper horiak eta urdinak baino ez ziren existitzen. Euren artean oso txarto konpontzen ziren.



Eta egun batean gudan hasi ziren. Txarto Konpontzen ez zirenak ortu batean ezkutatu ziren eta handik pixka batera piper berde gozoak erne ziren.

Gudara joan ziren piper hori eta urdin guztiak hil egin ziren.

Ordutik hona Gernikan piper berde famatuak baina ez dira batzen.

Goranek hazi batzuk zituen Gernikatik ekarriak eta Sofiari eman zizkion.

Goraneren familia Gernikara bueltatu zenean, Sofia triste geratu zen baina, bere ortuan piper berdeak ez ziren inoiz falta.

Sofia urtero etortzen da Gernikara Bakearen Museoa bisitatzera eta udak pasatzen ditu Goranerekin.






Maialen Altuna



L.H. 3.zikloa

Mikel Andoni Mingo Abiña

"Liburuak irakurtzea eta nintendora jolastea gustuko dut"

# "Leire ausarta"

## LEIRE AUSARTA

Behin batean bazen Leire izeneko neska bat. Hamar urte zituen. Buruargia, bihurria eta ausarta zen. Emaitza ezin hobeak atera zituelako eta gurasoekin portaera oso ona erakutsi zuelako saritu zioten gurasoek bidaia eder batekin eta familiarekin Alaskara joan zen egun batzuetarako oporretan. Heldu zenean ezin zuen sinetsi bere begi distiratsuek ikusten zutena. Den-dena elurrez beterik zegoen! Mendiak, zuhaitzak, maldak, etxeak, bideak... guztiz-guztia elurrez estalita, zuri-zuri. Argazkiak ateratzen eta oinak elurra zapaltzerakoan entzuten den kross, krass, kross... soinuaz eta sentsazioaz gozatzen ari zen. Hotza itzela zen eta elurretarako aproposak diren arropak jantzi ondoren, ibilalditxo labur bat egitera joan zen.



Bat-batean mutil gazte batzuk ikusi zituen snowboard egiten. Zoragarria iruditu zitzaion. Mutilengana hurbildu eta galdetu zien:

-Ibil naiteke zuekin snowboardean? eta mutilek hauxe erantzun zioten:

- 1 -

-Jakina ezetz! Aizu, neska zara eta zuk nesken gauzak egin behar dituzu! Adibidez, sokasaltoan ibil zaitezke, edota panpinekin ere bai, baina gurekin ez zara ibiliko zure bizitza osoan ere ez!

Hau esan eta gero barrez lehertu beharrean zeuden mutilak, Laire ordez, oso damututa eta goibel geratu zen, ez zuelako lagunik eta jolasteko aukerarik ere. Hotelera itzuli eta gurasoei kontatu zien gertatutakoa. Beraiek ondo ulertu zuten arazoa eta aholku batzuk emanez erantzun zioten:





-Ez zaitez kezkatu horregatik, beharbada ez dira oraindik ohartu nesken eta mutilen ahalmenak berdinak direla. Bihar hurbildu zaitezke eta beraiekin hitz egin ondoren ikusiko duzu nola konpontzen den dena- esan zion amak. Hitz hauek entzun ondoren lasaitu eta oheratu zen.

Hurrengo egunean mutilengana joan ondoren, ausardia eta adorea erakutsi zuen hau esanez:

-Nik ez dut oztoporik ikusten neska izateagatik. Guztiok jolas gaitezke edozertan baita neskok ere. Kanpoko itxura ez da garrantzi gehien duena, barrukoa baizik.

Mutilek ulertu zituzten Leireren hitzak eta barkamena eskatu ondoren, denok batera ibili ziren snowboardean.

Leire oso harro sentitu zen eta gurasoak ere bai. Mutilek ikasgaia ondo ikasi zuten, neskak eta mutilak berdinak garela. Gainera elkarrekin jolastean harremanak aberastu egiten dira eta pertsonak ere bai.





L.H. 3.zikloa

## Ariane Maruri Aspiazu

"Zaldian ibiltzea gustuko dut. Baita ere animalien inguruan egotea"

# "Elefante txikia"

## ELEFANTE TXIKIA

Bazen behin elefante txiki bat Asian bizi zena. Egun batean, ehiztari batzuk bere ama hil zuten. Ehiztariak elefante ama kamioi batean sartu zutenean, elefante kumea kamioiaren atzetik abiatu zen bere amarekin egoteko asmoz. Korrika asko egin zuen eta denbora askotan. Azkenean, herri txiki batera heldu zen. Bertan zirku bat zegoen animalia askorekin eta zirkuko nagusiak ikusi zuenean gure elefantea libre zegoela, harrapatu egin zuen. Elefante txikia beste elefanteekin ipini zuten baina bera oso triste sentitzen zen, ama faltatzen zitzaiolako.

Halako batean, elefanteak zeuden tokian gizon bat sartu zen eta aginduak ematen hasi zen. Elefantearen hezitzailea zen eta, bat-batean, makila batekin gogor hasi zen egiten

animalia guztiari, orduan, elefante txikia negarrez hasten. Oso triste eta bakarrik sentitzen zen.



Hilabete batzuk pasa ziren eta elefante txikia beste elefanteekin gero eta hobeto sentitzen hasi zen. Zirkuko hainbat gauza ikasi zuten eta jende aurrean ere, hasi zen gauzatxo batzuk egiten beste elefanteekin batera. Bera txikiena zenez, beste elefante handi baten gainera igotzen zen eta bere gainean jesarri, gero hanko baten gainean bueltak ematen zituen. Bere lana amaitzen zuenean zirkuko jendeak txalokatu egiten zuen eta bera oso pozik sentitzen zen.

Urte asko pasa dira eta gure elefante txikia oso handia

egin da. Zirkuko animaliarik handiena eta ezagunena da. Zirkura datozen ume guztiak elefantea ikustera datoz, zirkuko animaliarik politena eta handiena delako. Gure elefantea gero eta harroago dago.

Oso gustura dago zikuan eta lagun handiak egin ditu. Beste animalia guztiak, hartzak, tigreak, lehoiak bere lagunak dira eta denekin lan egiten du.

Orain gure elefanteak bere familia dauka eta bere seme txikiarekin zirkuan lan egiten du.

Ariane Maruri

5.maila

Zaldian ibiltzea gustatzen zait





Dani Garnett Fernández

"Gehien gustatzen zaidana futbolera jolastea da"

# "Lertxuntxotxuri"

## LERTXUNTXOTXURI

Europako iparraldeko hotzak direla eta, hegaztiok lurralde hauetatik ospa egiten dugu, eta horri hegaztien migrazioa deitzen diogu. Orduan, nik neurea kontatuko dizuet:

Lertxuntxotxuri nauzue, horrela deitzen didate eta!

Gorputz txuri-txuria dut, eztarri luze-luzea, moko estua-estua eta zorrotz-zorrotza.

Egun batean, ingurune hartako haizete zakar eta hotzari agur esan nien. Beraz, ibilbide berria egitera nindoan. Eztarri eta hanka luzeak luzatuz, hegoak astinduz, kilometroak eta kilometroak egiten hasi nintzen, airetik dabiltzan hegazkinen antzera, baina motorrik gabe, norberen indarrez baliatuz.



Egunak joan ahala, gero eta neke handiagoa. Tartean, egun eguzkitsuak, zein euritsuak. Egun eguzkitsuetan, bero handia, euritsuetan, aldiz, lumak blai-blai eginda, baina aurrera egin beharra.

Ibilbidean, makinatxo bat hegaztirekin topo egin nuen. Taldeka, multzoka, elkarrekin zetozen, ni, aldiz, bakarka KROA-KROA eginez animatzen ninduten. Momentu batzuetan, bakardadea utzi eta taldekidea nintzen. Taldeko desberdina izan arren, lagundu egiten zidaten.

Haizeak laguntzen ez ninduenean, hegoen mugimendua gero eta ahulagoa zen. Beherantz nindoan. Naturako kolore desberdinak gero eta nabariagoak ziren. Lurra zapaldu ondoren, pausoka hasi eta erreka ertzeko zuhaitzen hosto lehorren KRIS-KRAS-a. Errekako ur gardenetan begiratuz, atsedena hartu nuen. Inguruko paisaia zoragarria behatuz, eztarria luzatuz, zanba! arrankariteoren bat. Erregina banintz bezala, dastatu ondoren, pausoak emanez, aurrerantz egin nuen: Oka ibaiaren ertzak ziren. Okaren ibilgua jarraituz, erreka gero eta zabalagoa zen, gero eta ur emari gehiago baina zikinagoa.

- Zergatik izan zitekeen?
- Agian, gizakiok kutsatzen dugulako?

Erreka jarraituz, padurako zuhaixkak, SUKARRIETAKO etxe handi eta dotore-dotorea...

- Bai, Urdaibaiko paduran nengoen. Geldi-geldirik jarri, eta paisaia eder honetan ezezaguna nintzenez integratu beharra neukan.

Padurako lokatzetan zikindutako hankak, itsasoko ur gazitan bainatxoa harturik, garbi-garbi eginda geratzen zitzaizkidan. Bizileku zoragarri hura bilatu nuenean, nire gorputzean poza nabaritzen zen. Beraz, gaur egun inguru berrian, pozarren bizi naiz. Lagun berri asko ditut: Kormoranak, kaioak... hau da, hegaztiok izan arren denak desberdinak.



Gainera, gizakiak ezezik eskoletako ikasleek ere, hegaztien behatokitik egiten dizkiguten bisitatxoak eskertzekoak dira, denok elkar ezagutuz, elkarrekin bizi izateko aukera dugu eta!



L.H. 3.zikloa

Izaro Ziluaga Begiristain

"Irakurtzea eta lagunekin egotea gustatzen zait"

# "Maitasunaren balioa"

## MAITASUNAREN BALIOA

Baziren behin bi ume, Maider eta Markel deitzen ziren.
Maider eta Markel oso triste bizi ziren, heuren
gurasoak egun osoa lanean ematen zutelako eta
ez zuten Maider eta Markelekin egoteko denborarik.
Gurasoak oso kezkatuta zeuden, Maider eta Markelekin, mediku
askotara joan ziren baina ez zekiten zer gertatzen zitzaien.
Beste esfortzu bat egin eta medikuarengana joatea erabaki
zuten.

Medikuak gurasoekin hitz egin zuen:

-Lasai, ez da ezer, pasatuko zaie.-

esan zuen medikuak.

Amak erantzun zuen:

-Eskerrik asko

Datorren hilean etorri.-

esan zuen medikuak

-Agur

Handik hile batera berdin jarraitzen zuten.

-Kaixo, egun on, berdin jarraitzen dute, oso arduratuta gaude.-

esan zuen amak negarrez.

Medikuak galdetu zien:

-Eman al diezue maitasuna?-

-Maitasuna, nola maitasuna?-

esan zuen aitak.

-Ba, maitasuna: heurekin jolastu, denbora pasatzen.....

esan zuen medikuak.

amak erantzun zion:

-Ez daukagu denborarik, egun osoa lanean pasatzen dugu-.

-Ba hori izango da arazoa.-

esan zion medikuak

-Saiatu maitasun gehiago ematen eta datorren hilean etorri.-

gurasoak esan zien:

-Saiatuko gara

Handik bi astera Maider eta Markel oso pozik bizi izan ziren.

Gurasoak medikuarengana joan eta eskerrak eman zizkieten.

Baro



L.H. 3.zikloa

Igone Legarreta Galdiz

"Niri gehien gustatzen zaidan kirola saskibaloia da"

# "Zooko izurdeak"

## ZOOKO IZURDEAK

Bazen behin Sara izeneko neska bat, hogei urte zituen eta zoo batean lan egiten zuen, oso pozik zebilen bere lanean, bere adiskideekin eta animaliekin.

Berak izurdeak entrenatzen zituen, 3 izurde: Miki, Biki eta Riki. Hiru izurdeek Sarari bakarrik egiten zioten kasu, bera hiru izurdeekin egoten zelako: entrenatzen, janaria ematen eta batez ere jolasten.



Riki izurde emea zen eta Biki eta Miki, arrak. Batzudan borrokan hasten ziren bi arrak Rikirengaitik.

Sarak ezin zuen jasan Miki eta Biki borrokan ikustea eta ideia bat bururatu zitzaion. Orduan ideia hori nagusiari kontatzea erabaki zuen.

Nagusiarengana joan zen gertatzen zenaren berri ematera, eta zera esan zion:

-Miki eta Biki Rikirengaitik borrokatzen dira eta beti bata edo bestea odoletan gelditzen da, hori